

Ikastolen Etxean, 2023ko maiatzaren 9an.

Maiatzaren 4ean, Durangon, Ikastolen Elkarteak ezohiko batzar bat ospatu zuen EAEko ikastola guztiekin. Egungo hezkuntza-testuinguruaren aurrean eta duela egun batzuk ezagutu berri dugun Hezkuntza Lege Proiektuaren balorazio bateratu bat egin eta hemendik aurrerako pausoak eta estrategia definitzeko asmoz.

Gaur, Ikastolen Elkarteko Zuzendaritza eta organo gorena den Artezkaritza Kontseiluko kideak Ikastolen Etxean elkartu gara gure balorazioa euskal gizarteari helarazteko asmoz.

KOKAPENA – BIDEAN EGINDAKO URRATSAK

Azken urte honetan Euskal Hezkuntza Sistema arautuko duen legearen inguruan hainbat mugimendu egin dira Hezkuntza Sistema osatzen dugun eragileon aldetik. Eta GU IKASTOLAK, parte aktibo izan gara.

Apirilaren 25ean LEGE AURREPROIEKTUA ezagutu berri dugu, eta gaur honen balorazioa egiteko elkarti gara hemen. Horrekin batera, gure ustetan euskal gizartearentzat eta ikastola mugimenduarentzat ezinbestekoak diren aldaketak proposatzen ere bagatzoz.

Hori egin aurretik bidean egin diren urrats horietako batzuk aipatzea ezinbestekoa dugu:

- **2022ko martxoaren 31n** EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos alderdiek **EUSKAL HEZKUNTZAREN ERALDAKETARAKO OINARRIEN AKORDIOA adostu zuten**, eta Ikastolok **begi onez** ikusi genituen bertan zehaztutako hainbat ideia. Aldi berean, baziren **kezka eta ardura sortzen zizkigutentzako beste hainbat gako** ere. Legearen idazketa prozesua konplexua izango zela aurreratu genuen eta beronek hitzarmenak jasotakoa baino zehaztapen handiago beharko zuela ere bai.
- **2022ko irailaren hasieran, Hezkuntza Legearen lehen zirriborroa** ezagutu ostean eta Ikastolok urtero ospatzen dugun Ikasturte hasierako ekitaldian, argi adierazi genuen zirriborro horrek gure mugimenduan sorturiko ezinegona. ‘Desengainu’ hitza erabili genuen une hartan, eta, zentzuzko irtenbide bat eman nahian, ikastoletan eztabaidea prozesu bat abiatu eta **gure komunitatearen iritzia jaso genuen**. Eztabaidea prozesu horren ondorio izan ziren zirriborroari egindako ekarpenak eta azaroaren 22an Ikastolek egindako agerraldian plazaratutako balorazioa.

Abiapuntu hori zehazturik, hau da Ikastolen Elkartetik Lege aurreproiektuaren inguruan egiten dugun balorazioa:

**“BALEKOA DEN LEGE BATEN AURREAN GAUDE, BAINA GOBERNUARI
AGINDU ETA DEKRETU BIDEZKO GOBERNANTZA AHALBIDETZEN DION
LEGEAREN AURREAN ERE BAI. ALDEBAKARREKO POLITIKA
DERITZOGUNA”.**

Aipatu moduan, **balekoa** da Gobernu Kontseiluak onartu duen Lege aurreproiektua, Euskal Hezkuntza Sistema berri baterako bidea irekitzen du eta. **Aurreproiektu honek aukera esanguratsuak jasotzen dituela ezin dugu ukatu, eta gaur egun dugun Eskola Publikoaren Legearekiko aurrerapauso handia da.** Aurreproiektu honek jasotzen dituen **aukera esanguratsuenak** hauek dira:

- Lehen aldiz, publikotasun eredu berri bat definitu eta hezkuntza sistema propioa eraikitzeko bidean **Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren** idea jasotzen du. Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa osatuko duten ikastetxeek, administrazio-titularitatekoak izan ala ez, bete beharreko baldintzak, printzipioak, konpromezuak, betebeharrak eta lortu beharreko helburuak aurreproiektuan jasota daude.
- Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoan egongo **diren ikastetxe guztien finantzaketa bermatuko dela adierazten da**, doakotasun erreala ziurtatuz. Bat gatoz doakotasun printzipio eta helburuarekin, ikasle eta familia guztiei hezkuntza eskubidea bermatze aldera. Doakotasunaren bide honetan urratsak egiten hasi da Hezkuntza Saila finantzazio gehigarria emanez.
- Hizkuntzen alorrean ere, **euskararen** inguruan aurrerapauso batzuk eman dira. Besteak beste:

- o Neurriak hartuko dira euskararen erabilera bultzatzeko, eskola-komunitatearen motibazioa sustatzeko eta ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera indartzeko.
- o Euskararen minorizazio egoera aitortu da eta ondorioz C1 maila lortzeko prestakuntza sustatuko da irakasle guztien artean.
- o Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzerakoan euskararen B2 maila lortu beharko dute.

Baina ere berean, Aurreproiektu honek hainbat **gabezia** ditu, eta gabezia hauek arazo bilakatzen dira Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publiko propio eta bateratzaile bat gauzatzeko orduan. **Zein arazo ikusten dizkiogu?**

1. **Legearen zehaztapen falta.** Gai garrantzitsu gehiegia, deskribapen labur baten ondoren, araudi bitartez garatzeko geratzen dira. Agindu eta dekretu bidezko garapenek aldebakarreko politika ahalbidetzen dute, eta hezkuntza eragileoi prozesuan parte hartzeko aukera zaitzen digute. Susmo hau egiazatzeko aukera izan dugu ikasleen onarpen prozesuan ezarritako neurriekin, hezkuntza eragileok ez dugu eta prozesuan parte hartzeko aukerarik izan. Legearen garapena ondo bideratu nahi badugu, honek hezkuntza eragileen parte hartzea ahalbidetu beharko du.
2. Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren zehaztapen falta dago. **Publikotasun berri bat definitu eta hezkuntza sistema propioa eraikitzeko bidea** jasotzen bada ere, publiko-pribatu dikotomia juridikoa ez du gainditzen. Ikastetxe guztiok, titulartasuna zein den kontuan izan gabe, baldintza berdinatan jokatzeko ahalmena izan behar dugu.
3. Ikasle eta familia guztiei hezkuntza eskubidea bermatze aldera doakotasun printzipioa eta helburua zehazten dira, **baina ez da inon aipatzen doakotasun hori burutzeko modua, ezta erabiliko diren baliabideak ere.** Gaur egun Memoria ekonomikoan zehaztutako baliabideekin **ezinezkoa da doakotasuna gauzatzea.** Horregatik, eta helburu horri begira, LOMLOE berak Spainia mailan **epe zehatz batzuk ezarri eta lantalue bat eratzeko beharra** aipatzen dituen horretan, **Euskal Hezkuntza Legeak**

aipamen bera jaso beharko lukeela uste dugu. Eta ez hori bakarrik, ohar berezi bat ere bai doakotasunaren bermearen inguruan; ezin izango baita doakotasuna bermatu baliabide guztiak bideratu artean.

4. **Ez du gobernantza eredu berririk planteatzen.** Titulartasun pribatua duten ikastetxeak edota administraziopekoak aipatzen dira, baina ez da aintzat hartzen ikastolok eta kooperatibek dugun kudeaketa eredua, kooperatiben legean jasota dagoena. Alegia, ikastetxearen titulartasuna familiek eta kasu askotan langileek partekatzearena.
5. **Euskara eta euskal kultura ardatz izango dituen hezkuntza sistema ez da bermatzen.**
“Gehiago” behar dugu. Hizkuntza ikastereduak isilbidez indargabetuta badaude ere, Ikastetxeek euskararen alorrean jasotzen diren helburuak lortzeko, lege berriak benetako murgiltze eredua gauzatu beharko luke, oraingo Hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunak gaindituta. Garrantzitsua iruditzen zaigu murgiltze eredua legean zehaztea, ikastetxeek euskara lehenetsiko dutela ziurtatu eta euskararen arnasgune bilakatu daitezen. Horretarako Hizkuntza Proiektuak sendotu behar dira; sendotu eta erdigunean jarri, baliabide gehiagoz hornitzu. Euskal Hezkuntza Zerbitzuan egongo diren ikastetxe guztiekin, legearen euskara atalean agertzen diren helburuak erdietsi beharko dituzte. Helburu horien arteko esanguratsuena, Ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan B2a lortzearena izango litzateke. Gauza da ezin dugula lorpen horren ebaluazioa ikastetxe bakoitzeko irakasleengana utzi, kanpo ebaluaketa egitea ezinbestekoa litzateke objetibotasuna bermatzeko.
6. **Legeak ez du Euskal Herria bere osotasunean jasotzen.** Ikastolok Euskal Herria bere osotasunean landuko duen lege bat aldarrikatzen dugu. Euskal Herriaren lurralte osoari eragingo diona, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemako ikastetxeen arteko lankidetza hitzarmenak bultzatuko dituena. Eta horretarako bideak badaudela argi dugu. Alde batetik, Euskal Herrian dauden ikastetxe guztien arteko harremanak eta proiektuak sustatzuz; eta bestetik, Europa mailan dagoen legedia erabili; elkarlana sustatzeko erakundeak sortuz eta baliatuz. Puntu honekin lotuta, argi utzi nahi dugu ez ditugula inolaz ere alde batera utziko Iparraldean eta Nafarroan euskarazko irakaskuntzan ari diren ikastolekin dugun konpromisoa eta lankidetza. Nazio mailako hezkuntza sistema propio baterako urratsak egiten jarraitzeko asmoa dugu eta.

- 7. Legeak ez du euskal curriculumean oinarritutako hezkuntza sistema eraikitzen.** Euskal curriculumaren aipamen bakarra egiten du Euskara eta Hizkuntza Irakaskuntzarako Institutua arautzen den artikuluan: “Euskal Curriculuma lantzea eta eskola-materialen ekoizpena antolatzea”. Ikastolok, ordea, Euskal Curriculuma oinarri izango duen hezkuntza sistema nahi dugu. Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko dena. Konpetentzien garapenerako ikasgai zerrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Ebaluazio sistema heitztailea eta hobekuntzetara bideratua.
- 8. Legeak bidea ireki behar dio titulartasun partekatutako ereduak esperimentatzeari. Horretarako, errealtitate ezberdinetako esperientziak kontutan hartuz eta hauekin esperimentatuz.**

Egoera honen aurrean Ikastolok orain arte erakutsi dugun jarrera eraikitzailearekin jarraituko dugu, Euskal Herriko hezkuntza eragileon gaitasunean eta konpromisoan sinisten dugulako. Baino Hezkuntza sistema berri baterantz egin nahi dugun bidean adostasunak lortzea ezinbestekoa da eta, horretarako, alde guztiak egin behar dugu ahalegin berezi bat. Horregatik, Gobernuari aldebakarreko politika egiteari uzteko eskatzen diogu, eta eragileen artean adostasunak bilatzeko eta gogoeta eta eztabaida sustatzeko mekanismoak martxan jar ditzala ere bai, beti ere, denoi joko arau garden eta berdinak ezarriaz.

Denon artean eraiki dezagun etorkizuneko Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa.

Gu Euskara,

Gu Euskal Herria,

Gu Ikastola

Ikastolen Etxean, 2023ko maiatzaren 9an.

El 4 de mayo, en Durango, la Ikastolen Elkartea celebró una asamblea extraordinaria con todas las ikastolas de la CAV, ante el contexto educativo actual y con la intención de hacer una valoración conjunta del Proyecto de Ley de Educación que acabamos de conocer hace unos días y definir los pasos y la estrategia a partir de ahora.

Hoy, los miembros de la Dirección y del Consejo Rector, órgano máximo de Ikastolen Elkartea, nos hemos reunido en Ikastolen Etxea con el objetivo de trasladar nuestra valoración a la sociedad vasca.

UBICACIÓN – PASOS DADOS DURANTE EL PROCESO

En el último año se han producido diversos movimientos en torno a la ley que regulará el Sistema Educativo Vasco por parte de los diferentes agentes que conformamos el Sistema Educativo. Y las ikastolas hemos sido parte activa.

El 25 de abril hemos conocido el ANTEPROYECTO DE LEY y hoy nos hemos reunido aquí para hacer una valoración del mismo. Junto a ello, también venimos a proponer los cambios que consideramos imprescindibles tanto para la sociedad vasca como para el movimiento de las ikastolas.

Sin embargo, es necesario mencionar de antemano algunos de los pasos que se han dado durante este proceso:

- **El 31 de marzo de 2022** los partidos políticos PNV, EH Bildu, PSE-EE y Elkarrekin Podemos rubricaron **EL ACUERDO DE BASES PARA LA TRANSFORMACIÓN DE LA EDUCACIÓN VASCA**, en el que las **Ikastolas vimos con buenos ojos** algunas de sus ideas. Al mismo tiempo, había **otras muchas claves que nos preocupaban**. Adelantamos entonces que el proceso de redacción de la Ley sería complejo y que requeriría una concreción mayor que la contemplada en el Acuerdo.
- **A principios de septiembre de 2022**, tras conocer **el primer borrador de la Ley de Educación** y en el acto de inicio de Curso que cada año celebramos las Ikastolas,

expresamos con claridad el malestar generado por dicho borrador en nuestro movimiento. En ese momento utilizamos la palabra 'decepción' y, tratando de dar una solución razonable, iniciamos un proceso de debate en las ikastolas y **recogimos la opinión de nuestra comunidad**. Fruto de este proceso de debate fueron las aportaciones al borrador y la valoración hecha pública en la comparecencia de las ikastolas el 22 de noviembre.

Concretando este punto de partida, la valoración que desde Ikastolen Elkartea hacemos del anteproyecto de Ley es la siguiente:

“ESTAMOS ANTE UNA LEY VÁLIDA, PERO TAMBIÉN ANTE UNA LEY QUE CONCEDE AL GOBIERNO LA GOBERNANZA MEDIANTE ÓRDENES Y DECRETOS. LO QUE LLAMAMOS POLÍTICA UNILATERAL”.

Como se ha señalado, el anteproyecto de Ley aprobado por el Consejo de Gobierno es válido ya que abre el camino a un nuevo Sistema Educativo Vasco. No podemos negar que este anteproyecto contempla oportunidades significativas y supone un gran avance con respecto a la actual Ley de Escuela Pública. Las opciones más significativas que contempla este anteproyecto son las siguientes:

- Por primera vez, define un nuevo modelo de lo público, y recoge la idea del **Servicio Público Vasco de Educación** en aras a construir un sistema educativo propio. Se recogen, también, en el anteproyecto, los requisitos, principios, compromisos, obligaciones y objetivos a alcanzar por los centros que integrarán el Servicio Público Educativo Vasco, sean o no de titularidad administrativa.
- **Se indica que se garantizará la financiación de todos los centros** que formarán el Servicio Público Vasco de Educación, asegurando la gratuidad real. Compartimos el principio y objetivo de la gratuidad para garantizar el derecho a la educación de todos los alumnos y familias. En este camino de la gratuidad el Departamento de Educación ha comenzado a dar pasos mediante una financiación adicional.

- También en el campo de las lenguas se han dado algunos avances en torno al **euskera**. Entre otros:
 - Se adoptarán medidas para impulsar el uso del euskera, fomentar la motivación de la comunidad escolar y potenciar el uso del euskera en las relaciones entre el alumnado.
 - Se ha reconocido la situación de minorización del euskera, por lo que se promoverá la formación para el nivel C1 de euskera para todo el profesorado.
 - Al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria los alumnos deberán obtener el nivel B2 de euskera.

Pero, al mismo tiempo, este Anteproyecto presenta una serie de **carencias** que se convierten en un problema a la hora de llevar a cabo un Servicio Público Vasco de Educación propio e integrador. **¿Qué problemas le vemos?**

1. **La falta de concreción de la ley.** Demasiados temas importantes, tras una breve descripción, quedan por desarrollar reglamentariamente. Los desarrollos mediante órdenes y decretos posibilitan una política unilateral que dificulta a los agentes educativos la participación en el proceso. Hemos podido comprobar esta sospecha con las medidas establecidas en el proceso de admisión del alumnado; los agentes educativos no hemos tenido la oportunidad de participar en el proceso. Si queremos encauzar bien el desarrollo de la ley, se deberá permitir la participación de los agentes educativos.
2. Falta de concreción del Servicio Público Vasco de Educación. Si bien se define un nuevo concepto de lo público y se recoge el camino para construir un sistema educativo propio, no supera la dicotomía jurídica pública-privada. Todos los centros, independientemente de su titularidad, debemos tener la capacidad de actuar en igualdad de condiciones.

3. Se establecen los principios y el objetivo de la gratuidad para garantizar el derecho a la educación de todos los alumnos y familias, **pero no se menciona la forma de llevarla a cabo ni los recursos que se van a emplear.** En la actualidad **no es posible materializar la gratuidad** con los recursos definidos en la Memoria Económica. Por ello, y de cara a este objetivo, en el que la propia LOMLOE **establece unos plazos concretos** a nivel español y menciona **la necesidad de constituir un grupo de trabajo**, entendemos que **la Ley Vasca de Educación debería incluir la misma mención.** Y no sólo eso, sino también una advertencia especial sobre la garantía de la gratuidad, que no podrá garantizarse mientras no se hayan canalizado todos los recursos.
4. **No plantea un nuevo modelo de gobernanza.** Se hace referencia a los centros de titularidad privada y/o administrativa, pero no se tiene en cuenta el modelo de gestión que tenemos las ikastolas y cooperativas, recogido en la ley de cooperativas. Es decir, no contempla la opción de que la titularidad del centro sea compartida por las familias y en muchos casos también por los trabajadores.
5. **No se garantiza un sistema educativo centrado en el euskera y la cultura vasca.**
Necesitamos “más”. Aunque los modelos lingüísticos están tácitamente derogados, para que los centros alcancen los objetivos que se recogen en materia de euskera, la nueva ley debería llevar a cabo un auténtico modelo de inmersión lingüística, superando las diferencias que establecen los actuales modelos lingüísticos. Nos parece importante que el modelo de inmersión se defina en la ley para asegurar que los centros educativos primen el euskera y se conviertan en nichos vitales del euskera. Para ello es necesario consolidar los Proyectos Lingüísticos, consolidarlos y situarlos en el centro dotándolos de más recursos. Todos los centros docentes que estén integrados en el Servicio Público Vasco de Educación deberán cumplir los objetivos del apartado de euskera de la ley. El más significativo de estos objetivos sería el de que los alumnos obtengan el nivel B2 de euskera al finalizar la enseñanza obligatoria. La cuestión es que no podemos dejar la evaluación de este logro en el profesorado de cada centro, sería imprescindible una evaluación externa para garantizar la objetividad.
6. **La ley no recoge el País Vasco en su conjunto.** Las ikastolas reivindicamos una ley que aborde el Euskal Herria en su conjunto. Que afecte a todo el territorio de Euskal Herria y que impulse convenios de colaboración entre los centros del sistema educativo de nuestro país. Y tenemos claro que hay vías para ello. Por un lado, fomentando las relaciones y los proyectos entre todos los centros educativos de Euskal Herria; y por

otro, utilizando la legislación existente a nivel europeo; creando y utilizando organismos de colaboración. En relación con este punto, queremos dejar claro que en ningún caso vamos a abandonar nuestro compromiso y colaboración con las ikastolas que en Iparralde y Navarra se dedican a la enseñanza en euskera. Nuestra intención es seguir dando pasos hacia un sistema educativo propio a nivel nacional.

7. **La ley no construye un sistema educativo basado en el currículo vasco.** En todo el anteproyecto hay una única referencia al currículo vasco, concretamente en El artículo que regula el Instituto para la Enseñanza del Euskera y de las Lenguas, el referido a "la elaboración del Currículo Vasco y la organización de la producción de materiales escolares". Las ikastolas, sin embargo, queremos un sistema educativo basado íntegramente en el Currículo Vasco. Con un temario de desarrollo de competencias con metodología y cosmovisión propia. Y con un sistema de evaluación educativo orientado a mejoras.
8. **La ley debe abrir el camino a la experimentación de modelos de titularidad compartida, teniendo en cuenta, para ello, experiencias de diferentes realidades y experimentando con ellas.**

Ante esta situación, las ikastolas continuaremos con la actitud constructiva que hemos mostrado hasta ahora, porque creemos en la capacidad y en el compromiso de los agentes educativos de Euskal Herria. Pero es imprescindible alcanzar consensos en el camino que queremos seguir hacia un nuevo sistema educativo y, para ello, todas las partes debemos hacer un esfuerzo especial. Por ello, instamos al Gobierno a que deje de hacer una política unilateral y ponga en marcha mecanismos para buscar consensos y promover la reflexión y el debate entre los agentes, estableciendo unas reglas de juego transparentes e iguales para todos.

Construyamos entre todos el futuro Servicio Público Vasco de Educación.

Gu Euskara,

Gu Euskal Herria,

Gu Ikastola